

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakariak iritzi du UPN eta PSN alderdien arteko gobernu-akordioa Espainiarentzat erreferentzia izango dela

Nafarroako Gobernu berriaren erronka nagusia enplegua sortzea izango dela adierazi du

Lunes, 20 de junio de 2011

Nafarroako jarduneko Lehendakari Miguel Sanz Sesma azkena izan zitekeen Gobernu Bilkura buru izan da gaur goizean eta, haren ostean, hedabideen aurrean hitz egin du. Agerraldian Lehendakaria ziur azaldu da "hurrengo Nafarroako Gobernuaren ekarriko duen aurreikusitako UPN eta PSN alderdien arteko akordioa Espainiarentzat erreferentzia izango dela".

Sanz Lehendakariarentzat, Nafarroako bi alderdi garrantzitsuenen arteko lankidetzaren politika nazionalan islatu behar da, "Espainiak behar handia baitu bi alderdi garrantzitsuenen artean

akordio handi bat lortu eta krisi ekonomikoko zailtasunen aurrean beharrezko erreformak egin ahal izateko".

"Hurrengo Gobernuak izango duen funtsezko erronka gure erkidegoan enplegua sortzea izango da, eta horri begira egingo ditu ahalegin guztiak". Hori esan ondoren, Sanzek adierazi du Lehendakari den Gobernuak nahiz hurrengoak, koalizioak, Nafarroan politika egiteko oinarri sendo bat partekatzen dutela, eta "Konstituzioarekin batera, garapen eta autogobernurako oinarritzko tresna instituzionala Nafarroako Foru Hobekuntzarako dela berresten dugu".

Legaldiaren balantzea

Lehendakariak adierazi du bere Gobernuak "gauzak ondo egin izan direla pentsatzeko arrazoiak dituela, zorroztasunez, gardentasunez eta eraginkortasunez kudeatu duelako krisia, inbertsioen alorrean bere



Miguel Sanz.

programa gauzatzeko hainbat oztopo jarri duen krisia". Gobernu ezberdinetan parte hartutako kontseilari guztiak zoriondu ditu jendaurrean.

Sanzek iritzi du, beste erkidego batzuen arazo ekonomikoen aurrean, "Nafarroak zalantza horiek nota onarekin gainditu dituela"; beraz, "kontent samar nago, nahiz eta oraindik ere bide luzea urratu behar den krisiari aurre egiteko eta zailtasun handiak gainditu behar diren".

Sanzek, gainera, hedabideei agur esan nahi izan die "bertan egon izana eskertuz, desadostasun eta kritikaren eremutik batzuetan, eta laguntza emanez beste zenbaitetan; izan ere, horri esker, hobetzen lagundu diote, eta baita errespetutik nahiz konpromisotik bere iritzia berresten ere".